



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2023ko abendua

BERBA-LAPIKO

**Garapen metodologikoa ahozko
konpetentzietan aurrera egiteko**

Ikerketa 3.0



Proiektuaren Garapen Taldea:

Olatz Bengoetxea Manterola – Soziolinguistika Klusterra – *Koordinatzailea*
Paula Laita Pallares – Soziolinguistika Klusterra
Agurtzane Azpeitia Eizagirre – Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) – *Zuzendaria*

Sekuentzia Didaktikoaren lantaldea:

Leire Diaz de Gereñu Lasaga – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)
Ibon Manterola Garate – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Berritzegune Nagusiko Aholkulariak

Sustatzailea

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila
Soziolinguistika Klusterra

Txostenaren idazleak:

Olatz Bengoetxea
Paula Laita
Agurtzane Azpeitia

Soziolinguistika Klusterra Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain 943 592 556
<https://soziolinguistika.eus/eu/> kluster@soziolinguistika.eus

2023ko abendua



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

0 SARRERA.....	3
1 IKERKETA 3.0.....	4
1.1 IKERKETAREN FASEAK.....	6
1.1.1 Ikastetxearekin harremana (URTARRILA).....	6
1.1.2 Irakasleen prestakuntza (URTARRILA-MARTXOA).....	6
1.1.3 Metodologiaren inplementazioa (APIRILA-EKAINA).....	7
1.1.4 Datu bilketa (APIRILA - EKAINA)	7
1.1.5 Datu kudeaketa (EKAINA - UZTAILA)	7
1.1.6 Analisia (UZTAILA - AZAROA).....	7
1.1.7 Emaitzak (AZAROA)	7
1.1.8 Materialetan egokitzapenak (URRIA - AZAROA)	7
1.1.9 Txostena eta ikastetxeei feedbacka (ABENDUA).....	7
1.2 AZTERKETA: IKASLEEN AZTARNAK.....	8
1.2.1 Azterketarako adierazleak.....	9
1.2.2 Azterketarako tresna: Errubrika.....	11
1.2.3 Corpusa.....	26
1.3 emaitzak	26
1.3.1 A ikastetxea	26
1.3.2 B ikastetxea	30
1.3.3 C ikastetxea	33
1.4 IKERKETAREN ONDORIO OROKORRAK.....	39
2 ONDORIO NAGUSIAK	41

0 SARRERA

2023. urtean Berba-lapiko proiektuan hiru ildo jarri dira martxan:

1. *Hedapena*
2. *Ekintza-Ikerketa 3.0*
3. *Digitalizazioa.*

Txosten honetan bigarren ildoari helduko diogu: *Ekintza-Ikerketa 3.0*.

Berba-lapiko egitasmoa ARRUE programaren baitan kokatzen da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantziatutako dirulaguntzaren bidez. Egitasmoa Soziolinguistika Klusterrak abiatu zuen 2017-18 ikasturtean Mondragon Unibertsitateko HUHEZIren zuzendaritzarekin. EHUKo ELEBILAB ikerketa-taldeak ere parte hartu du proiektuaren hasierako urteetan.

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabilera eta konpetentzia sakontzeko proposamena dugu, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunei erreparatuko diena. Prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu nahi da, euskararen ahozko konpetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, metodologia berriztatzean eta ikasleen garapen adierazleetan.

Jarraian, 2023an garatutako lan-ildo horietako batean jorratutako lanak jaso ditugu:

Ikerketa 3.0: ikasleen ahozko garapen-aztarnak ikertu dira begirada longitudinal batetik.

1 IKERKETA 3.0

Berba-lapiko egitasmoa hedatzeko irakasleen prestakuntza eta aholkularitza gauzatzeaz gain, funtsezkoa da metodologiak izan duen inpaktua ikertzen jarraitzea. Horretarako, aurtan 3.0 Ikerketa martxan jarri da. Lau urteko ikerketa da eta EAEko 3 ikastetxetan jorratuko da; txosten honetan A ikastetxea, B ikastetxea eta C ikastetxea bezala izendatu dira.

Jakin badakigu hizkuntzaren irakaskuntza ez dela mugatzen hiruhileko bakarrera, arnas luzeko bidea dela eta horrek jarraipena eskatzen duela. Ikuspegi horretatik, 3.0 ikerketan **begirada longitudinal** hori txertatu nahi izan dugu. Horretarako, bi ildo jorratu ditugu:

1. Lehenengo ildoaren helburua da **ikasleen garapen aztarnak** aztertzea; hau da, Berba-lapiko metodologia inplementatu aurretik, ikasleen maila zein den ikusi, eta metodologia inplementatu ondoren zein jauzi eman duten aztertzea.
2. Bigarren ildoan behatu nahi da, maila luzeago (edo longitudinal) batean, hau da, **lau urtez metodologia inplementatu ondoren**, zein aurrerapen egon den ikasleen ahozko hizkuntzan. Horretarako, proiektuan parte hartu dutenen eta ez dutenen arteko aldea ikertuko da.

Hurrengo irudian, ikerketaren bi ildoak azaltzen dira:




Hortaz, **lehenengo ildoan**, urtez urte, hautatutako ikasleen ekoizpenak jaso eta aztertu dira: aurtan (2022-23) LH1en daudenak; datorren urtean (2023-24), ikasle horiek LH2ra pasako dira eta berriro ikasle berberen ekoizpenak jaso eta aztertuko ditugu; hurrengoan (2024-25), berriro, LH3an daudenean, eta azken urtean (2025-26), LH4ra iristen denean, azken jasoketa egingo da. Horrela edukiko da, urtez urte, metodologia horrek ikasle horiengan izan duen eragina.

Bigarren ildoan, hau ikusi nahi da: maila longitudinal batean, hau da, lau urtez metodologia inplementatu ondoren, ikasle horiek zein aurrerapen eman duten. Horretarako, metodologia jaso dutenen eta jaso ez dutenen ekoizpenak alderatu nahi dira. Kasu honetan, LH4ko taldeen ekoizpenak erabiliko dira alderatzeko. Aurtan LH4 mailakoek ez dute Berba-lapikoko metodologia inplementatu; beraz, bertako

diagnosia eginik lortu da datu hori. Datorren urtean, LH4ko ikasleak oraindik Berba-lapikon egongo ez direnez, berriz jasoko da datu hori. Era horretan, aukera egongo da bi taldeen arteko erkaketa burutzeko, alegia, Berba-lapikon parte hartu duten eta ez duten ikasleen ekoizpenen artean.

Hortaz, beheko irudian azaltzen den bezala, **corpusa** talde esperimentalen ekoizpenek zein kontrol taldekoenek osatu dute. Irakasleen balorazioak ere jaso dira materialetan eta metodologian egokitzapenak egiteko asmoz.



Jarraian, ikerketari buruzko zenbait datu batzuk bildu dira:

- **3 ikastetxe:** A ikastetxea, B ikastetxea, C ikastetxea
- Metodologia: **Hizkuntza errutina LH1 Minutu bat goizero.** Bi bertsio: A eta B materialak (B maila baxuagoa)
- Iraupena: **32 saio** (20 minutu/saioa). Astean 4-5 aldiz = **8 astez**
- **Talde esperimentalak:**
 - LH1eko bi lerrotan jaso dira ekoizpenak. Guztira **6 gelek** hartu dute parte (3 ikastetxe x 2 lerro)
 - **6 irakasle** guztira hartu dute parte, ikastetxe bakoitzean 2 irakaslek (3 ikastetxe x 2 irakasle)
 - **54 ikaslek** guztira parte hartu dute ikerketan (A ikastetxeko 19 ikaslek, B ikastetxeko 16 ikaslek eta C ikastetxeko 19 ikaslek)
 - Guztira, **108 testu** jaso dira

• **Kontrol taldeak:**

- LH4ko bi lerrotan jaso dira ekoizpenak. Guztira **6 gelek** hartu dute parte (2 lerro x 3 ikastetxe)
- **6 irakaslek** guztira hartu dute parte, ikastetxe bakoitzean 2 irakaslek (3 ikastetxe x 2 irakasle)
- **36 ikasle** guztira aztertu dira, gela bakoitzean 6 ikasle (6 ikasle x 2 lerro x 3 ikastetxe)
- Guztira, **36 testu** jaso dira

1.1 IKERKETAREN FASEAK

Ekintza ikerketan, urtero ziklo berbera errepikatzen da. Hortaz, urte honetan ere fase desberdinetan aritu gara. Hurrengo ataletan 3.0 ikerketaren aurtengo lanak jaso dira.



1.1.1 Ikastetxearekin harremana (URTARRILA)

Lehenengo urratsa izan da ikastetxeekin harremanetan jartzea eta proiektuaren aurkezpena egitea. 3 ikastetxe horietako zuzendaritzakoekin bilera bat antolatu da eta klustroan ere proiektua aurkeztu da. Bestalde, ikerketan parte hartu duten irakasleekin ere bilera bat egin da ikerketaren zehaztapenak eta haien rola zehazteko.

1.1.2 Irakasleen prestakuntza (URTARRILA-MARTXOA)

Fase honetan, Berritzeguneko aholkularien bitartez, LH1eko irakasleei prestakuntza eman zaie. Ikastetxe bakoitzean, aholkulari batek 3 prestakuntza saio eta jarraipen saio bat eman ditu. Aldi berean, LH4ko irakasleekin online bilerak antolatu dira grabazio eguneko ariketa gainbegiratzeko eta zalantzak argitzeko.

1.1.3 Metodologiaren inplementazioa (APIRILA-EKAINA)

Irakasleak formatu eta gero, LH1eko geletan inplementatu da metodologia. Irakasleek ikasitakoa gelara eraman dute eta metodologia 8 astez inplementatu dute.

1.1.4 Datu bilketa (APIRILA - EKAINA)

Segidan emandako pausoa izan da datu bilketarako dispositibo metodologikoa diseinatzea eta grabaketarako tresnak eta protokoloa prestatzea. Irakasleen eta ikasleen baimenak ere jaso dira, eta irakasleekin zehaztu dira haien egitekoak. Corpusaren bilketa horrela antolatu da:

- Apirilean, LH1eko ikasleen aurretestuen grabaketak
- Maiatzean, LH4ko kontrol-taldeko ikasleen grabaketak
- Ekainean, LH1eko ikasleen ondotestuen grabaketak eta LH1eko irakasleen balorazioak, elkarrizketen bidez.

Ikastetxeetan ikasturteko itxiera emateko asmoz ekainaren amaieran, zuzendaritzarekin ere bilera ere egin da.

1.1.5 Datu kudeaketa (EKAINA - UZTAILA)

Fase honen helburua da jasotako corpusa azterketarako prestatzea. Hortaz, bideoak eta audioak editatu eta antolatu dira. Ikasleen kodifikazioa eta ekoizpenen transkripzioak ere egin dira.

1.1.6 Analisia (UZTAILA - AZAROA)

Ikerketaren helburua, ikasleen ahozko gaitasunean emandako jauzia aztertzea da. Horretarako, azterketarako erreminta diseinatu da; ondoren, datuak analizatu dira eta, azkenik, emaitzen irakurketa osatu da. Horrez gain, irakasleen balorazioak aztertu dira datuak irakasleen pertzepzioekin osatzeko.

1.1.7 Emaitzak (AZAROA)

Fase honetan, emaitzen laburpena osatu da. Ikerketaren ondorioak landu dira eta mezu orokorrak zehaztu dira, txostenean txertatzeko eta ikastetxeei feedbacka emateko.

1.1.8 Materialetan egokitzapenak (URRIA - AZAROA)

Analitik ateratako ondorioekin, materialetan egokitzapenak egin dira. Irakasleen balorazioetan jasotako feedbacka ere baliatu da materialak egokitzeko.

1.1.9 Txostena eta ikastetxeei feedbacka (ABENDUA)

Bukatzeko, ikerketaren emaitzak txosten honetan jaso dira eta ikastetxeekin partekatuko dira. Kasu honetan 2024an proiektuaren segida ikastetxeetan aurkezteko antolatu dugun saioa aprobetxatuko dugu ikastetxeei ikerketaren emaitzen berri emateko

1.2 AZTERKETA: IKASLEEN AZTARNAK

Lehen aipatu dugun bezala (18. or.), aurten 3.0 ikerketaren helburu nagusia ikasleen garapen aztarnak aztertzea izan da, hau da, ikasleen ahozko ekoizpenetan, gaitasunari dagokionez zein aurrerapen-aztarna antzeman izan den behatzea, bereziki hizkuntza errutinetan langai izan dituzten alderdietan.

LH1eko ikasleen kasuan, ahozko komunikaziorako kompetentzia garatzeko urratsak egin ditzan, ikas testuinguru aproposa sortu nahi zan da Hizkuntza-Errutina metodologiaren bidez. Zehatzago esanez, "kontaketa" testu mota lantzen da (*Minutu bat goizero*) materialaren bidez. Irakasle-ikasleek goizero tarte bat hartu eta istorioak partekatuko dituzte elkarrekin eta amaierako ekoizpenean (ondotestuan) ikasleek izandako amets bat kontatuko dute.

Zehazki, **Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumeko (77/2023)** honako kompetentzia espezifikoak izan dira langai:

Funtsezko kompetentzia:

- Ikasleak ahozko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia garatzeko urratsak egin ditzan ikas testuinguru aproposa sortzea
- Eleanitza
- Gaiaren araberakoa

Deskriptoreak (HKK1):

- Gertakariak, pentsamenduak eta sentimenduak euskaraz ahoz adierazten ditu (adieraztea).
- Elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du/ parte hartzea lankidetzaz eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko eta baita lotura pertsonalak eraikitzeke ere.

Funtsezko kompetentzia hori lortzeko **honako kompetentzia espezifikoak** garatu dira:

- Hitzaren bidez, ideiak, sentimenduak sormenez adierazi eta komunikatzeko, gaitasun sortzailea bultzatzea, oinarrizko hizkuntza formak ezagutuz erabilera errealean ekoizteko.
- Hizkuntzarekin gozatzea eta euskararekiko atxikimendua handitzea, kultura baliatuz hitzun aktiboak sortzeko.
- Ahozko testuak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatzeko eta alderdi formalak eta oinarrizko edukiak landuz komunikazio premiei erantzuteko

Horretarako, **lantzen diren hizkuntza baliabideak (Oinarrizko jakintzak)** honako hauek dira:

- kontaketa testuaren egitura orokorra ezagutu eta makro eta mikro egitura barneratzea (pertsonaia batzuen istorioak eta ikasleek beraiek izandako ametsak kontatu behar dituzte);

- oinarrizko deklinabideak ikastea (*non, norekin*);
- *izan/ukan-eduki* eta *egon* aditzen forma trinkoak eta laguntzaileak erabiltzea (orainaldian eta lehenaldian); baiezko eta ezezko perpausak orainaldian erabiltzea;
- testu-antolatzaile berriak ikastea (*lehenengo, gero, amaieran, bat-batean, halako batean*);
- eta adjektibo eta aditzondo berriak erabiltzea (koloreak, neurriak, sentipenak).

Atal honetan, ikergai izan diren adierazleak (1.2.1), azterketarako errubrika (1.2.3) eta lagingaren zehaztapenak (1.2.4) jaso dira.

1.2.1 Azterketarako adierazleak

Ikerketaren ikergai honetarako, **ikasleen ahozko gaitasunean izandako garapen aztarnak aztertzeko**, errutinetan langai izan dituzten alderdiak eta ahozkoa ebaluatzeko esanguratsuak diren zenbait errubrika aintzat hartu ditugu (Dolz, 2004; ISEI-IVEI, 2013; Vila et al, 2021)¹. Hiru adierazle nagusitan jarri dugu arreta: **ahozko jarioan, langai izan den generoaren hezurduran (planifikazio mailan) eta hizkuntza formetan**. Adierazle horiek bereziki errutinekin erdietsi nahi izan dira helburuetatik eta errutinetan landutakotik eratorri dira, eta, beraz, adierazle hauek guztiak ere kontuan izan ziren errutinen diseinuan ere. Horiez gain, ordea, ez ditugu albo batera utzi nahi izan elementu ez berbalak eta hartzailearen funtzioa izan, ahozko ekoizpenen ezaugarri direlako.

Alderdi horiek ebaluatzeko, Condemarin eta Medinaren arabera (2000), informazio erabilgarria eskaintzen du **errubrikak**; ikaskuntzan izandako garapen maila ebaluatzeko ekarpena egiten du, bereziki dimentsioak, irizpideak eta mailak eskaintzen dituen bitartekoa delako (Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek 2015:12)².

Errubrikak bi motatakoak izan ohi dira: holistikoak eta analitikoak. Lehenak, begirada globala eskaintzen du eta analitikoak, berriz, hizkuntza jardura hori dimentsio edo gaitasunetan eta irizpidetan bereizten du (dimentsio linguistiko, testual, diskurtsiboa...). Azken horri Sotomayor, Ávila eta Jéldrezek (2015) honako abantailak ikusten dizkiote:

- Dimentsio bakoitzeko (eta gure kasuan dimentsio hori irizpideen arabera desglosatuta egongo da) ikasleek duten maila ezagutzeak aukera eskaintzen du dimentsio bakoitza berariaz landu, irakatsi, praktikan jarri eta ebaluatzeko: "Al dar a conocer por separado el desempeño esperado en cada dimensión, las rúbricas analíticas permiten enseñar, practicar y evaluar cada una de las dimensiones de la producción" (2015:12) .

¹ Dolz, J.(2004). Produire une explication en chimie à l'école primaire. Le jus de chourosge: un indicateur coloré. In: K. Canvat, M. Monballin & M. van der Brempt (Ed.) Convergences aventureuses. Littérature, langue, didactique. Pour Georges Legros (pp.89-109). Namur: Presses universitaires de Namur.

ISEI-IVEI, Berritzegune Nagusia eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2013). Hizkuntza komunikazioa: Euskara. LH 4. maila. Ebaluazio-diagnostikoa 2012.

Vila, F. X. i al. (2021). "Una anàlisi comparativa del domini del català i del castellà orals a la fi de l'educació secundària obligatòria a Catalunya". Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law, 75, 85-106. <https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3592>.

² Sotomayor, C., Ávila, N. eta Jéldrez, E. (2015). *Rúbricas y otras herramientas para desarrollar la escritura en el aula, Chile*. Chile: Santillana del Pacífico S.A. de Ediciones.

- Halaber, ekoizpenetan arretaguneak zehazten laguntzen du, eta konplexutasunaz jabetzen ere bai.
- Garapen horretan indargunean eta hobetzekoak identifikatzen ere laguntzen du.

Kasu honetan ere ikasleen garapenaren aztarnak ebaluatzeko, bi alderdi uztartu dira: batetik, ikasleen garapenaren argazki orokor edo global bat ematen saiatu da, eta bestetik, ikasle horren ahozkoan gaitasun edo dimentsio bakoitzeko egin duen garapena gehiago zehazten saiatu da.

Eraiki den errubrika ez da hutsetik sortu, hainbat adituren³ ekarriak eta ahozkoa lantzeko zenbait errubrika aztertu eta hizkuntza errutinen metodologian maila bakoitzeko langai izan diren adierazleak ere modu mailakatuan txertatuz eraiki da. Funtsezkoa da errubrika nola antolatuta edo osatuta dagoen gehiago zehaztea, ikasleen emaitzak ere horren arabera aztertuak izan baitira.

Ahozkoaren lanketari begira, eta hizkuntza errutinetan langai izan diren alderdiak aintzat hartuz, sortu den errubrikan bi dimentsio nagusi bereizi dira: dimentsio linguistiko testuala eta dimentsio diskurtsibo-erretorikoa. Dimentsio bakoitzaren barruan, hainbat irizpide daude, dimentsioa bera desglosatzen dutenak eta azterketari begira eta hizkuntza errutinetan langai izan dutena aintzat hartuz esanguratsuak direnak.

a) Dimentsio linguistiko-testualean:

- **Testuaren egitura eta testuaren kohesioa eta koherentzia:** helburu komunikatiboari erantzuteko, ikasleen ahozko ekoizpena zentzu-unitate gisa (modu autonomoan eta koherentean) nola antolatzen den aztertu da. Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da. Beraz, ea eskatutako testuaren testu-egitura errespetatzen den ikusi da irizpide honekin: kontaketa, narrazioa, deskribapena edo gure kasuan jolasen azalpena non, norekin eta nola jolasten den arau, urratsak azalduz (LH3) eta bihurrikeria baten azalpena (LH4). Horrekin batera, informazioaren arteko harremanak gauzatzeko hizkuntza-mekanismoak (kohesio- baliabideak) erabiltzen diren ere bai.
- **Morfologia** eta honen barnean **deklinabidea** eta **aditza** nabarmendu dira.
- **Sintaxia** ahozko diskurtsoan perpaus bakunez gain, koordinatuak nahiz menpekoak ekoizteko gai den; eta
- **Lexikoa** edo langai izan den edota ez den hiztegia murrizta den ala askotarikoa. Funtsean, arau morfosintaktikoen erabilera zuzena den zehaztu da, baita lexiko egokiaren erabilera zuzena eta askotarikoa den ere.

b) Dimentsio diskurtsibo-erretorikoan:

- **Komunikazio egoerara egokitzea:** Eskatutako egoera komunikatiboari eta eginkizunaren helburuari egokitzen ote zaion, zailtasunak izan ote dituen aztertzen da; ekoizpenak helburua ongi betetzen ote duen.

³ Carmen Sotomayor Natalia Ávila Elvira Jéldrez (2015). *Rúbricas y otras herramientas para desarrollar la escritura en el aula*, Chile, Chile: Santillana del Pacífico S.A. de Ediciones.

Vila, F. X. i al. (2021). "Una anàlisi comparativa del domini del català i del castellà orals a la fi de l'educació secundària obligatòria a Catalunya". *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language of Law*, 75, 85-106. <https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3592>.

ISEI-IVEI (2021). *Ebaluazio-diagnostikoaren markoa (Lehen Hezkuntzako 4. maila): hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia* (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza)

ISEI-IVEI. "Mintzamenerako ebaluazioa": LH4.maila

Garro, E.; Pérez, K.; Azpeitia, A. eta Irizar, A. (2021). "Jendaurreko ahozko aurkezpen lanketa unibertsitatean Sekuentzia didaktiko eta praktika gogoetatsuaren bidez", *Ikastaria*, 18. zenbakia, 195-219 orr.

1.2.3 Corpusa

Esperimentaleko corpusa zehazteko irizpideak, hauek izan dira:

- **Testuinguru erdaldunak**, hau da, 1. gunea eta 2. gunean kokatutakoak⁴, aukeratu dira.
- **Gelako bi lerro** kontuan hartu dira.
- Ikasleak aukeratzekoan, **D ereduan eskolatutako ikasleak, Haur Hezkuntzatik hasitakoak eta euskararekiko gaitasun edo jarrean muturreko egoeran ez dauden ikasleak** hautatu dira. Bereziki ondo moldatzen direnak edo etxetik euskara dakartenak, edota, ikasle-etorri berriak, edo aparteko zailtasuna dituztenak hizkuntzekin.

Hona hemen aurtengo LH1ean egindako ikerketaren datuak:

- Ikerketa laginari buruz, LH1 mailan, 2022-2023 ikasturtean, **hiru ikastetxetako datuak jaso dira**: A ikastetxean **38 testu** (19 aurretestu, 19 ondotestu); B ikastetxean **32 testu** (16 aurretestu, 16 ondotestu), eta C ikastetxean **38 testu** (19 aurretestu, 19 ondotestu), hain zuzen ere. **Guztira, 108 testu** bildu dira.

Horietatik, **42 ikasleren ekoizpenak** aztertu dira 3 eskolatan, hau da, gela bakoitzeko, 7 ikasle (LH1 A eta LH1 B), guztira ikastetxe bakoitzeko 14 ikasle. Hortaz, guztira, **84 testu** aztertu dira (42 aurretestu eta 42 ondotestu).

1.3 EMAITZAK

Jarraian, hiru ikastetxetako emaitzak eta ikasleek emandako jauziari buruzko ohar esanguratsuak jaso dira.

1.3.1 A ikastetxea

Ikastetxe honetan, guztira **14 ikasleren ahozko ekoizpenak aztertu dira**, hau da, gela bakoitzean 7 ikasle (LH1An 7 ikasle eta LH1Bn 7 ikasle).

B ikastetxean aztertu diren LH1 ikasle guztiak kontuan hartuta, emaitzak honako hauek izan dira:

- Ikasle gehienek puntu bateko jauzia egin dute (gehienek $C > B$ eta ikasle batek $D > C$). Bi ikaslek bi puntuko jauzia egin dute ($D > B$). Ikasle bat, adierazleei dagokienez, maila berean mantendu da ($C > C$) baina hobekuntza txiki bat antzeman da $C+$, nahiz eta mailaz igo ez
- Ikasleek jauzirik nabarmenena jarioan, adizetan, deklinabidean eta testu egituran egin dute, eta jauzirik txikiena, berriz, syntaxian ikusi da.

Hurrengo tauletan ateratako datuak laburbildu dira:

⁴ 2021eko inkesta soziolinguistikoaren arabera, gunea horietako datu soziolinguistikoak hauek dira: 1. gunean, %32,3 euskaldunak daude eta 2. gunean, %23,1.

A IKASTETXEKO IKASLEEK EMANDAKO JAUZIA		
MAILA	ZENBAT PUNTUTAKO JAUZIA	IKASLE KOPURUA
C > B	1	8
D > C	1	2
D > B	2	2
C > C	0	2
GUZTIRA		14

A IKASTETXEAN ZEIN ADIERAZLETAN EMAN DUTE JAUZIRIK NABARMENENA ETA TXIKIENA		
ADIERAZLEAK	JAUZIA	GUZTIRA EMANDAKO JAUZI KOPURUA
Testuaren egitura, kohesioa eta koherentzia	10	74
Morfologia: Deklinabidea	11	
Morfologia: Aditza	12	
Sintaxia	3	
Lexikoa	9	
Komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzea	8	
Jariora: Isiltasuna, etenak, makuluak, zalantzak	12	
Jariora: Diskurtsoa eraikitzekeo estrategiak	9	

Jarraian ikasle baten azterketa adierazle adierazle aurrettestuetatik ondotestuetara jaso da adibide gisa:

IK1: C > B	
Jauzia adierazle guztietan eman du, sintaxian izan ezik; sintaxian C mailan mantendu da.	
AURRETESTUA	ONDOTESTUA
<p>IRK: Hurrengo, Izaro. Izaro, begiratu... Oie, mesedez, isilik egon, bale? Jesarri korruan ondo, aurrera begira, Izaro, benga, eseri zaitetz eta zuzendu grabagailua eta mikrofonoa. Begiratu bi minutu, eta gero hasi kontatzen. Izaro, ozenki, bale?</p> <p>IK1: Bale.</p> <p>IRK: Benga.</p> <p>IK1: Mutil bat e: e dago e jaten e: platano bat, bota du cáscara lurrera (2'') Et-eta beste ume bat e paseatzen dago eta cáscararekin e egin du buruz-behera [eskuineko besoarekin biratzeko keinua egiten du] eta jauzi da.</p> <p>IRK: Mmm mmm...</p> <p>IK1: Umea.</p> <p>IRK: Non dago zure pertsonaia?</p> <p>IK1: Kalean.</p> <p>IRK: Eta: norekin dago?</p> <p>IK1: Bakarrik.</p> <p>IRK: Bakarrik. Eta ze orduan zer gertatu zaio? Esan berriro, errepikatu alto.</p> <p>IK1: Jauzi da buruz behera. [Aurreko eskuineko besoko keinu berdina errepikatzen du]</p> <p>IRK: Zure pertsonaia?</p> <p>IK1: Bai. (3'')</p> <p>IRK: Nor jauzi da?</p> <p>IK1: Umea. [irakasleari begiratzuz]</p> <p>IRK: Baina zure pertsonaia edo beste ume bat?</p> <p>IK1: E: pertsonaia.</p> <p>IRK: Seguro?</p> <p>IK1: E ez, beste ume bat.</p> <p>IRK: Bale, [23B-LH1A-2 jaiki egiten da] or-orduan norekin dago, bakarrik, ezta?</p> <p>IK1: Bakarrik.</p> <p>IRK: Ederto. Bale, ekarri. [23B-LH1A-2 irakaslerantz zuzentzen da]</p>	<p>IRK: Benga/ orain/ Izaroren txanda/ benga, Izaro.</p> <p>IK1: [Bere paperari begira; paperezko irudietan gertatzen dena kontatzen ari da] Egun batean, nire amarekin nengoen etxean/ gero/ Parisen [Irakasleari begira] museora/ [Begirada papelera itzuliz] Louvrera/ ikusi genuen/ eseskultura bat/ eta/ umea hartzen/ e: [pentsakor gora begira] (2'') Txori bat.</p> <p>IRK: Mmm mmm.</p> <p>IK1: Eta ere bai faraoi bat/ eta gero/ autobusez/ bueltatu/ ginen etxera... (2'') Eta oso pozik e sentitu nintzen museoan. [Irakasleari begira jarriz]</p> <p>IRK: Aber, orduan esan duzu/ e: Parisera joan zinela?</p> <p>IK1: Bai.</p> <p>IRK: A:, norekin joan zinen Pariserantz?</p> <p>IK1: Amarekin eta aitarekin.</p> <p>IRK: A:, eta zer ikusi zenuen Parisen?</p> <p>IK1: [Aurrera begira pensakor] Pues/ ikusi/ nuen Torre Eiffel-a...</p> <p>IRK: Aja.</p> <p>IK1: Eta ere bai/ El Louvre [Irakasleari begira]/ eta:/ e/ gaztelu bat...</p> <p>IRK: Ajá/ oso ondo.</p> <p>IK1: E:/ [irribarrez] eta ere bai piscina bat.</p> <p>IRK: Orduan eguraldi ona egin zuen?</p> <p>IK1: Bai bai...</p> <p>IRK: [gainetik] Egon zinenean?</p> <p>IK1: Baina momentu bat [x] txarra.</p> <p>IRK: Ajá.</p> <p>IK1: Lehenengo egunean momentu bat txarra egin zuen...</p> <p>IRK: Orduan berez denetarik egin zuen?</p> <p>IK1: Baina bigarren egunean, oso ondo.</p> <p>IRK: Ajá.</p>

	<p>IK1: Egon ginen/ e:/ eguzkia: zegoen.</p> <p>IRK: Bale. Eta nora joan zinen Parisera?</p> <p>IK1: [Behera begira] Au/ [Bapatean aurrera begiratuz] e: kotxez.</p> <p>IRK: Kotxez joan zinen?</p> <p>IK1: Bai.</p> <p>IRK: Ajá, ederto/ E: zerbait kontatu nahi duzu? Orduan, Louvre-ko museoa ikusi zenuen esan duzu, eskultura bat?</p> <p>IK1: E [Pentsakor geratuta] (2'') Bai.</p> <p>IRK: Bai?</p> <p>IK1: Eta faraoia.</p> <p>IRK: Faraoia/ Eta nola da museoa barrutik? Kontatu pixka bat.</p> <p>IK1: Pues [aurrera azalduz] barrutik da como/ e:/ [irakasleari begira] gaztelu bat baina ez da.</p> <p>IRK: Mmm mmm. (2'')</p> <p>IK1: Eta/ ere bai dago/ e:/ cuna bat...</p> <p>IRK: Mmm mmm.</p> <p>IK1: E mmm/ pues (2'') E:/ pues da-dago/ e:skultura bat handi handia...</p> <p>IRK: Mmm mmm.</p> <p>IK1: Eta zen beste país bat baino daukate Lou:vre:an.</p> <p>IRK: Mmm mmm/ bale/ ederto, eta zelan sentitu zinen oporretan ama eta aitarekin?/ Zelan egon zinen?</p> <p>IK1: Ba, oso ondo/ sentitu nintzen oporretan.</p> <p>IRK: Ajá. Dibertigarriak izan ziren?...</p> <p>IK1: [Gaietik] Bai! Oso dibertigarriak.</p> <p>IRK: Ederto. Oso ondo, Izaro.</p>
<p>Gaitasun linguistiko-testualari dagokionez, testu egitura eta koherentzia, garapen handia egon da aurretetik ondotestura. Aurretetik testuaren egitura ez du errespetatu, ZER galderari erantzutera mugatzen da bereziki baina NON, NOREKIN, NOIZ galderari dagokien informazioa eman gabe. Ondoren irakaslearen galderari erantzunez osatu du informazioa. Ondotestuan, aldiz, kontaketa hezurdura bere osotasunean bete du eta hori modu beregain batean egin du, nahiz eta atal bakoitzeko informazioa osoa ez izan.</p> <p>Deklinabidean, hobekuntza agerikoa izan da kasu marken erabilerari dagokionez. Gainera, ondotestuan kasu marka horiek diskurtso monologalean ekoiztu ditu.</p>	

Aditzari dagokionez, aurretestuan ere ez ditu oraina eta lehena nahastu (guztia orain aldiaren kontatu du) eta ondotestuan lehenaldi batean. Beraz, aurretestuan ezin jakin oraina eta lehena ezagutzen dituen.

Sintaxian ere aldea egon da, nahiz eta garapen adierazleak ikusita zail den aldea azpimarratzea. Garbi dago, ordea, irakaslearen galderaren ostean aurkaritzako esaldia ere egin duela, eta ez dela koordinazioetara bakarrik mugatu.

Hiztegian ere jauzia ikusi dago. Aurretestuan, hiztegia mugatua eta murrizta izan du, eta batzuetan gaztelaniara jo du (*platanoa, cáscarekin*). Ondotestuan, hiztegia zuzena da. Ez du gaztelaniara jo eta berariaz landutako hiztegiaren (*pozik*) zein landu gabekoaren (*txori bat*) arrastoak daude. Horiekin batera, aditz ekintza askotarikoagoak (*bueltatu, sentitu, joan*) erabili ditu.

Dimentsio diskurtsibo-erretorikoari dagokionez, konplexutasun handirik gabeko diskurtsoa ekoitzi du, oro har, nahiz eta aurretestutik ondotestura garapen txiki bat badagoen. Esaterako, aurretestuan, gertakariak orainaldian kontatu ditu eta ondotestuan, lehenaldian. Horrez gain, gertatzen dena aditzera emateko, irakasleen galderetatik abiatu gabeko diskurtso monologalean, sekuentziazio bat badago, nahiz eta continuum hori "eta gero" antolatzailea errepikatuz lortu duen. Horrez gain, irakasleak egindako galderei erantzuterakoan, aurkaritzako antolatzaile bat ere baliatu du (***baina*** bigarren egunean, oso ondo).

1.3.2 B ikastetxea

Ikastetxe honetan, guztira **14 ikasle aztertu dira**, hau da, gela bakoitzean 7na ikasle (LH1A 7 + LH1B 7 ikasle).

Aztertu diren LH1eko ikasle guztiak kontuan hartuta, emaitzak honako hauek izan dira:

- B ikastetxean maila baxu batean hasi dira. Ikastetxe honetako ikasle gehienek puntu bateko jauzia egin dute (gehienek $D > C$, bi ikaslek $C > B$ eta ikasle batek $B > B+$). Ikasle bat maila berean mantendu da ($C > C$).
- Ikasleek jauzirik nabarmenena honako adierazle hauetan egin dute: testuaren egiturari, kohesioari eta koherentzian; eta komunikazio-eginkizunari egokitzean eta jarioan. Jauzirik txikiena deklinabidean eman dute.

Hurrengo tauletan emaitzak laburbildu dira:

B IKASTETXEKO IKASLEEK EMANDAKO JAUZIA		
MAILA	ZENBAT PUNTUTAKO JAUZIA	IKASLE KOPURUA
D > C	1	10

C > B	1	2
B > B+	1	1
C > C	0	1
GUZTIRA		14

B IKASTETXEAN ZEIN ADIERAZLETAN EGIN DUTE JAUZIRIK NABARMENENA ETA ZEINETAN TXIKIENA

ADIERAZLEAK	JAUZIA EGIN DUTEN IKASLEAK	GUZTIRA EMANDAKO JAUZI KOPURUA
Testuaren egitura, kohesioa eta koherentzia	13	78
Morfologia: Deklinabidea	5	
Morfologia: Aditza	9	
Sintaxia	8	
Lexikoa	9	
Komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzea	11	
Jariora: Isiltasuna, etenak, makuluak, zalantzak	12	
Jariora: Diskurtsoa eraikitzekeo estrategiak	11	

Hona hemen ikasle baten azterketa adierazlez adierazle aurretestuetatik ondoretuetara, adibide gisa:

IK1: D > C	
Oso maila baxuan hasi da, baina jauzia ikusi da hainbat adierazletan.	
AURRETESTUA	ONDOTESTUA

<p> <i>IRK: Prest dago Oihan/ prest zaude? Bale/ ba nik tapatuko dut marrazkia/ utziko dut horrela inork ez ikusteko/ eta/ zabaldu begiak/ eta egon beharko gara adi-adi/ adi-adi eta isilik Oihan entzuteko/ Hasi ba Oihan</i> IK1: Es que no sé contarle/ azeria da <i>IRK: Non dago?</i> IK1: E::/ harean dago <i>IK2: Zer da harea?</i> <i>IRK: Galderak ez ditugu egingo bale/ utziko diogu Oihani kontatzen</i> IK1: Eta ere/ Eta ere bai dago sagutxo bat/ eta::... <i>IRK: Zer ari dira egiten Oihan?</i> IK1: E: borrokatzen <i>IRK: Eta zer pasatzen da?</i> IK1: Ze:/ azeria haserretu da ez? Azeria haserretu da eta:: (4') no me acuerdo <i>IRK: Zer pasatu da? Nahi duzu berriro ikusi apurtxo batean?</i> <i>[irakaslea altxa egiten da erakusteko]</i> IK1: Ikusi du hartz bat eta: haserretu dira <i>IRK: Zerbait gehiago nahi duzu kontatu? Beno orain orduan Oihanek kontatu du istorio bat eta pantailan jarriko dut irudiak atzo bezala eta zuek asmatu beharko duzue zein den Oihanek kontatu duen istorioa bale? Aber e</i> </p>	<p> <i>IRK: Bueno Oihan zure txanda/ e: hau utziko dugu lurrean zu joateko begiratzen/ lagunak eta besteok x: Oihanek kontatuko digula bere ametsa bai? Benga/ altu-altu bale?</i> IK1: Nire familiarekin nago (4') e: <i>IRK: Non zaude?</i> IK1: Mendian nago (5') gero:/ mendia apurtu da (4') gero:/ gero:: erori gara/ eta: bukaeran em ri-ri no se decirlo en euskara <i>IRK: Badakizu pentsatu nola da río euskaraz?</i> <i>IK2: Ibaia (hainbatek batera)</i> IK1: Ibaian (3') ibaian gaude <i>IRK: Zertan? Nola bukatu da? Ibaian zertan ari zarete?</i> IK1: Buceando <i>IRK: Ta nola da euskaraz?</i> IK1: No sé <i>IRK: Nork daki bucear nola den euskaraz? Nola da bucear? Berdin-berdin buzeatu ordun bukaeran? A ver kontatu bukaeran zertan ari zareten</i> IK1: Buzeatzen / buzeatze:n <i>IA: Baina bukatu esaldia</i> IK1: Buzeatzen gaude <i>IRK: Aiba:/ ze amets dibertigarria eta kontatu nahi diezu lagunei nola sentitu zaren ametsen?</i> IK1: Pozik <i>IRK: A ver bukatuko duzu esaldia? Nola da?</i> IK1: Pozik nago <i>IRK: Primeran</i> </p>
---	---

Gaitasun linguistiko-testualari dagokionez, testu egituran eta kohesioan, jauzia egin du. Aurrettestuan modu autonomoan esaldi bakarra egin du (*es que no se contarle, azeria da*), eta ezinbestekoa du kontaketa gauzatzeko irakaslearen galderak egitea. Ondotestuan, irakasleak berehala egiten du galdera, baina ideia horiek nahiko modu autonomoan egin ditu (*nire familiarekin nago / non zaude? mendian nago, gero, mendia apurtu da, gero, gero erori da eta bukaeran em ri no se decirlo en euskara / nola sentitu zara? Pozik*) Gainera, jabetuta dago euskaraz nola esaten den ez dakiela eta hori ere gogoeta metalinguistikoaren adierazle izateaz gain, laguntza eskatzeko modu bat da.

Deklinabide-kasuetan, garapen oso txikia egon da. Izan ere, modu autonomoan oso gutxi ekoiztu du. Hala ere, ondotestuan NOREKIN (familiarrekin), eta NON (*mendian*) kasu markak baliatu ditu, berriaz landu dituzten deklinabide kasu

markak dira. Aurretetan absolutiboa daraman sintagma soil bat bakarrik ekoitzi du (*ikusitu du hartz bat*).

Aditzari dagokionez, aurretetik ondoretura ez da ia alderik ikusi maila aldatzeko adinakorik behintzat. Aditz puntukaria (*-tzen ari*) ez da agertu. Sintaxian ez da garapen handirik ikusi.

Hiztegiari dagokionez ere ez da garapen handirik egon. Hiztegiak mugatua izaten jarraitu du, baina aurretetan "*es que no se contarle dio*", eta ondoretutan hitz jakin batzuk dira ez dakizkienak (*em -ri no se decirlo en euskara*). Ondoretutan, ordea, gainerako kideek hitz zehatza euskaraz esaten lagundu diote (*ibaia*). Berdinkideen arteko laguntza ere sustatu da, eta hori ere bada metodologia honekin sustatu nahi duguna.

Dimentsio diskurtsibo-erretorikoari dagokionez, egoera komunikatiboari erantzuteko orduan, beregaina den mezua soilik hartuko bagenu, mezua aurretetan ez da ulertu. Ondoretutan ere beregaina den informazioa oso mugatua izan da, baina lehen bi esaldiek informazioa neurri batean ulertzeko aukera eskaini dute: *Nire familiarekin nago, mendian nago, gero mendia apurtu da, gero, gero erori gara eta bukaeran...*

Bestalde, diskurtsoa etena ikusi da, baina aurretetan ez bezala, ondoretutan geroerabili du makulu gisa diskurtsuari continuum bat emateko. Diskurtsuaren konplexutasunari dagokionez ere, ez da garapen handirik egon, baina irakasleen eskaerari esker, esaldiak amaitu egiten ditu. Berak ez du autozuzenketarik egin baina irakasleak eskatzen diona osatu egin du (*Baina bukatu esaldia. Buzeatzen gaude, pozik nago*).

1.3.3 C ikastetxea

Ikastetxe honetan, guztira **14 ikasleren ekoizpenak aztertu dira**, hau da, gela bakoitzean 7na ikasle (LH1A 7 + LH1B 7 ikasle).

C ikastetxean aztertu diren LH1eko ikasle guztiak kontuan hartuta, emaitzak honako hauek dira:

- Maila altu batetik abiatu dira. Ikastetxe honetako ikasle gehienek B mailan hasi dira eta maila berean mantendu dira. Horietako hiru ikaslek puntu erdiko jauzia egin dute (B > B+), baina aldea ez da nahikoa izan puntu oso bat igotzeko. Ikasle bat C mailan hasi eta maila berean mantendu da (C > C).
- Ikasleek jauzirik nabarmenena adierazle hauetan eman dute: aditzetan, testu egituran eta koherentzian, eta lexikoan. Jauzirik txikiena eginkizunari egokitzeko adierazlean eman dute; bai aurretetan bai ondoretutan egoera komunikatiboari egokitu zaio, mezua ulertu da eta nahiko beregaina ikusi da.

Hurrengo tauletan jaso dira emaitzak laburbilduta:

C IKASTETXEKO IKASLEEK EMANDAKO JAUZIA

MAILA	ZENBAT PUNTUTAKO JAUZIA	IKASLE KOPURUA
B > B	0	12
C > C	0	1
C > B	1	1
GUZTIRA		14

C IKASTETXEAN ZEIN ADIERAZLETAN EMAN DUTE JAUZIRIK NABARMENENA ETA TXIKIENA		
ADIERAZLEAK	JAUZIA EGIN DUTEN IKASLEAK	GUZTIRA EMANDAKO JAUZI KOPURUA
Testuaren egitura, kohesioa eta koherentzia	3	21
Morfologia: Deklinabidea	2	
Morfologia: Aditza	5	
Sintaxia	2	
Lexikoa	3	
Komunikazio egoerari eta eginkizunari egokitzea	0	
Jariora: Isiltasuna, etenak, makuluak, zalantzak	3	
Jariora: Diskurtsoa eraikitzekeo estrategiak	3	

C ikastetxeko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, ikastetxe honetan **beste aldagai bat** txertatu nahi izan da: **etxeko hizkuntza**. Ikastetxeak emandako datuen arabera, LH1A gelan 10 ikaslek euskara etxetik dakarte eta 14 ikaslek gaztelera; LH1B gelan, 13 ikaslek dakarte euskara etxetik eta 9 ikaslek gaztelera.

Hortaz, emaitzak ere bi taldetan sailkatu dira: etxetik euskara ekartzen dutenak eta etxetik gaztelera ekartzen dutenak:

- **Etxetik euskara:**

Emaitzen arabera, etxetik euskara ekartzen duten ikasleak B maila batetik abiatu dira eta B/B+ mailan mantendu dira. Adierazleetan abiapuntuako maila desberdinak ikusi dira, eta aurrettestuetatik ondotestuetara egindako jauzia txikia izan da. Eta, gehienetan, jauzi txiki hori ez da mailaz igotzeko bezainbestekoa izan.

Hona hemen ikasle baten azterketa adierazleaz adierazle aurrettestutik ondotestura, adibide gisa:

IK1: B > B+	
8tik 4 adierazletan puntu bateko jauzia egin du eta beste lau adierazletan maila berean mantendu da. Bataz bestekoa kontuan hartuta, B mailan hasi eta mantendu egin da.	
AURRETESTUA	ONDOTESTUA
<i>IK2: Beste bat egingo degu?</i> <i>IRK: Hiru:</i> IK1: E mutil ba::t/ kaletika:n/ zihoala: <i>IRK: Adi:: / adi::</i> <i>IK3: Nik badakit zein</i> IK1: Platano bat jate:n [barre egiten dute ikasleek] platanoaren azala lurrera: bota zue:n/ gero:/ e: kaletikan ibili ze:n/ eta:: e platanoarekin irristatu zen <i>IK2: Badakit</i> <i>IRK: Ba al dakizute?</i>	<i>IRK: Ozen IK1 zure txanda</i> IK1: Hasiera:n/ lo nengoen/ eta: nire etxera lapur bat sartu zen/ ondore:n (5`) nire panpin gogokoena lapurtu zuen <i>IRK: Mei ozenago bihotza/ benga zuk badakizu ozen hitz egiten</i> IK1: Gero:/ nire aita eta amari esan nien a ver ikusi zuten/ eta ondore:n/ o sea eta azkenik nire anaia eta arrebari galdetu nien/ baina gero hainbeste animo eman zidatela (3`) aurkitu nuen <i>IRK: Nola sentitu zinen IK1?</i> IK1: Lehenengo triste eta gero pozik <i>IRK: Oso ongi ados</i>
<p>Gaitasun linguistiko-testualari dagokionez, testu egiturari, ondotestuan mailaz ez da igo, baina hobekuntzak egon dira. Aurrettestuan, NOR (mutil bat), NON (kaletikan zihoala) eta ZER (oso modu laburrean) aipatu ditu. Ondotestuan, NORA (<i>nire etxera</i>) ZER (kontaketa badago) eta NOREKIN (inferitu liteke-<i>lapurra, aita, ama, anaia</i>) agertu dira.</p> <p>Deklinabide kasu markak zuzen erabili ditu bi testuetan: aurrettestuan, NORA (<i>lurrera</i>), NON (<i>kaletikan</i>) eta ondotestuan, NORA (<i>nire etxera</i>) eta NORI (<i>aita eta amari</i>).</p> <p>Aditzaren erabilerari dagokionez, aurrettestuan zein ondotestuan aditz perifrastiko ugari eta askotarikoak erabiltzen ditu, bai Nor motakoak eta baita Nor-Nork</p>	

motakoak ere (aurrettestuan: *kalean zihola, bota zuen, ibli zen, irristatu zen / ondotestuan: lo nengoen, sartu zen, lapurtu zuen, esan nien, ikusi zuten, galdetu nien*). Alderdi horretan ez legoke alderik, baina ondotestuan EGON aditz trinkoa lehen aldian ere ongi egin du (*nengoen*).

Ondotestua sintaxi aldetik aberatsa izan da. Perpaus koordinatu ugari ikusi dira, baina baita menpekoren bat ere. Aurrettestuan menpeko esaldia xumea da (*kaletikan zihola...*) eta kontaktetan ohikoa izan daitekeena. Ondotestuan bi menpeko esaldi egin ditu: aurkaritzakoa BAINArekin eta baita zehar galderazkoa ere, nahiz eta horretarako *a ver* erdal lokailua erabili. Bestalde diskurtsoa zehazteko edo zuzentzeko ere *o sea* erdal lokailua erabili du, nahiz eta erdal lokailua izan aurretik.

Hiztegian ez da jauzi handirik ikusi. Bi testuetan hiztegia zuzena da. Ondotestuan ikusi dira langai izan diren hitzak (triste, pozik).

Dimentsio diskurtsibo-erretorikoari dagokionez, jarioan, aurrettestuan eten oso txikiak egon dira (*ee*), eta ondotestuan apenas etenik egon den, baina diskurtsoaren luzera ez da hain handia izan eta zentzu horretan ez genuke esango jario handiko diskurtsoa denik.

- **Etxetik gaztelera:**

Emaitzen arabera, etxetik gaztelera ekartzen duten guztiak B mailatik abiatu eta maila berean mantendu dira. Dena den, jauzia ikusi da ikasle gehienetan nahiz eta txikia izan ($B > B+$) eta beste ikasle batek puntu bateko jauzia egin du ($C > B$). Bi ikasle maila berean mantendu dira ($B > B$ eta $C > C$).

Hemen ikasle batzuen azterketa adierazleaz adierazle, adibide gisa:

IK2: B > B	
B mailatik abiatu da eta maila horretan mantendu da adierazle guztietan.	
AURRETESTUA	ONDOTESTUA
<p><i>IRK: Atzo Mari Goringoren istorioarekin batera jolas txiki bat egin genuen / Gogoratzen duzue zer zen?/</i></p> <p><i>IK3: Bai</i></p> <p><i>IK4: Bai</i></p> <p><i>IRK: Nor da nor jolasera jolastuko dugu elkarrekin. [...]</i></p> <p><i>IRK: IK2 bere istoriotxoa kontatuko du/ Bueno/ bere lagunaren istoriotxoa kontatuko du / eta gero asmatu beharko duzue zein izan den protagonista istorio</i></p>	<p><i>IRK: Benga, IK2. Ze aukera ematen du Berbalapikok? (4") IK1, errepikatu dezakezu IK2-k esan duena mesedez? (2") Ahí va, IK2, errepikatu.</i></p> <p><i>IK1: Hitz egiten entzutea.</i></p> <p><i>IRK: Berba-lapikok aukera ematen du hitz egitean eta horregatik denok gure ametsak kontatzen ari gara/ eta baita ere besteak entzuteko aukera ematen digu, orduan... / Besteek hitz egiten dutenean/ Juan, adibidez orain/ ni hitz egiten ari naizela/ besteek entzun behar</i></p>

horretan/ Orduan/ IK2-ri emango diot papertxo bat /

IRK: Eta fijatu behar zara zer gertatzen zaion gure protagonistari / Besteek ez ikusi / Bestela ezin izango duzue parte hartu asmatzerakoan [...]

IRK: Beste gauza bat inportantea jakin behar duzue [...]

IRK: Atzo azaldu nizuen Berba-Lapikok bi aukera ematen zituela / alde batetik / berba egiteko / zer zen berba egiteko / hitz egiteko / eta gero beste gauza baterako ere balioko du /

IK3: Entzun eta isilik egon

IRK: Entzuteko besteek zer esaten duten / Orduan/ IK2 hasiko da hitz egiten eta zuek entzun behar duzue gero asmatzeko zein izan da protagonista / Emango diogu tartea IK2-ri eta prest dagoenean [...] Prest zaudenean esan PREST NAGO

IK2: Prest nago

IRK: Prest zaude? / Zelako artista / Bale / Ipurdia kuxinetan mesedez/ Eneko / Odei / Juani itxarongo diogu [...]

IRK: Oso inportantea da IK2 hitz egiten ari den bitartean, besteek ezer ez esatea eta isilik egotea / bale / horrela ez diogu moztuko berari/ itxaron egingo diogu / [...]

IRK: Esan dugun bezala / IK2-ren txanda da / IK2 zara ezta?

IK2: Bai

IRK: IK2-ren txanda da eta bere lagunari zer gertatu zaion kontatuko digu/ Prest zaude IK2?

IK2: Egun batean axeri bat zegon e mendi batean [noizbehinka irakasleari begira], eta sagu bat ikusi zuen/ eta nahi zuen jan/ eta sagua pentsatu zuen sartzea bere etxetxora zela hobeto/ eta azeria gelditu zen atrapatuta. [irribarrez]/ eta gero otso e mmm azeri-a mmm gelditu zen zulo batean e mmm ataskatuta ta em: em: hartza bat lagundu zion ateratzen. [ipuina eskutan biribiltzen du]

IRK: Oso ondo. Bukatu dezu? Primeran!

dezue / esan genuen aurrekoan besteak entzuten ere ikasten degu eta ideiak hartzen ditugu...

IK2: Nik ere bai badaukat beste gauza bat.

IRK: Bota, IK2!

IK2: E mmm disfrutatzeko.

IRK: Hori da, ondo pasatzeko eta ondo pasa dugu Berbalapiko egiten./ [X]

IK2: [X]/ Hitz egiteko eta-et-eta entzuteko.

IRK: Ba mesedez, hemendik aurrera/ txandak errespetatuko ditugu, ondo eseriko gara eta IK2-k hitz egiten hasten denean/ saiatuko gara ez hitz egiten, bai? Ahoa itxita izaten, bale? belarriak irekita eta ahoa itxita/ orduan berriro ere esango det/ kuxinak ipurdi azpian, mesedez./ belarriak ireki... (9") Orain/ IK2, ezta zara? IK2-k buruarekin baietz eginez]/ IK2-k kontatuko digu/ bere/ ametsa. / Orain arte egin dugun bezala/ kontutan hartu behar ditugu/ Berbalapikon ikasitako hitz magikoak istorioak kontatzeko edo ametsak kontatzeko./ Orduan, IK2, prest zaudenean/ danok egongo gara entzuteko prest/ zure ametsa entzuteko. (9")

IK2: [Irakasleari begira] Hasieran/ Denok geunden ikastolan/ Ondoren/ E: nola da: remolino bat euskeraz? / Eta gero/ mamu bat etorri zen/ eta-eta dena-den e mmm ikastola bihurtu zitun txirrista eta dena salbatu ginen. (5")

IRK: Eta ulertzen duzu azkenaldia zer zen?

IK2: Mmm:/ Lehenengo urduri nengoen baina gero pozik.

IRK: Oso ondo/ bale. (2") Galdera bat egin diguzu ezta?/ oso ondo egin duzu baina, itxoin/ baina galdera bat suertatu zaizu/ ari zinenean kontatzen esan duzu "nola da?" gogoratzen duzu?/ Galdetu nahi dezue?... (6") Begira,[Beste ikasle bateri arreta deituz] IK2/ galdera bat egin du eta zuk ez duzu entzun. Fuerte, mesedez!

IK2: Nola da remolino euskeraz?

	<p> <i>IRK: Norbaitek badaki nola den remolino euskeraz? (2'') Nik ezta ere! Nik esango nun tornadoa, egia da, edo remolinoa denok ulertzen dugu. Ez dakit nola esan. / Gira-gira?/Tornado esango nuke nik. (3'')</i> </p> <p> <i>IK3: Edo tronpa de elefante da... (2'')</i> </p> <p> <i>IRK: Ekiri bururatu zaio nola esaten den/ Eki, mesedez/ lagundu danoi, nola da remolino euskeraz?</i> </p> <p> <i>IK4: Zurrumbiloa.</i> </p> <p> <i>IRK: Zurrumbiloa, egia da/ nik ikasi dut/ zuek ikasi duzue? (18'')</i> </p> <p> <i>IK2: E-Errepikatuko dut nire ame?...</i> </p> <p> <i>IRK: Nahi dezu?/ Bai?/ Benga ba!</i> </p> <p> <i>IK2: Hasieran e: denok geuden ikastolan/ ondoren/ e: mmm/ zurrumbiloa etorri zen/ gero mamu bat etorri zen eta ikastola/ txirrista bat bihurtu zen.</i> </p>
--	---

Gaitasun linguistiko-testualari dagokionez, testu egiturari dagokionez maila beretsuan ikusi da. Agian ondotestuko lehen saiakera bera maila baxuagoan izan da, baina zerbait euskaraz nola esaten zen ez zekienean komunikazio estrategia baliatu du eta galdetu egin du (*Nola da remolino euskaraz?*), eta kontaktarekin aurrera jarraitu du.

Deklinabide kasu marka batzuk erabili ditu aurrettestuan (NON-*mendi batean, zulo batean, NORA-etxetxora, NOR-axeri bat*), eta ondotestuan (NON-*ikastolan, absolutiboa-ikastola, txirrista, ergatiboa-denok*).

Askotariko aditz perifrastikoak erabili ditu eta lehen aldian ere NOR eta NOR-NORK ongi bereizi ditu, bai aurrettestuan eta baita ondotestuan ere (*denok geunden, urduri nengoen, etorri zen, bihurtu zitun, etorri zen, bihurtu zen*). Egon aditza lehen aldian ere ongi erabili du (*geunden*). Aldea: aurrettestuan *hura* pertsonari dagokion forma erabiltzen du eta ondotestuan, berriz, lehen pertsona pluralari dagokion forman. Ondotestuan aditz bat ez du zuzen ekoitzi, baina bigarren aldiz kontaktu duenean zuzenduta kontaktu du (*bihurtu zen*).

Sintaxiari dagokionez, aurrettestuan saiakera egin du konpletibozko menpeko esaldi bat egiteko, nahiz eta ez den zuzena izan.

Ondotestuan, aurrettestuan ez bezala, azpimarratzekoa da gaztelaniazko hitzen bat euskaraz esaten ez zekienean *nola esaten den* galdetu duela; hau da, komunikazio estrategiaz baliatu da. Aurrettestuan zuzenean gaztelaniaz esan du (*atrapatuta*), baina ondotestuan strategiak baliatu ditu.

Dimentsio diskurtsibo-erretorikoari dagokionez, ikaslea gai izan da ondotestuan hitzen bat euskaraz nola esaten den ez zekienean laguntza eskatzeko eta isildu ordeztu aurrera egiteko. Gainera, behin hitza euskaraz nola esaten den jakin duenean (*zurrumbiloa*), berriz birformulatu du ametsa. Bada beraz,

autozuzenketaren adierazle. Beraz, aurrerapen txiki bat badago, baina ez mailaz igotzeko beste.

1.4 IKERKETAREN ONDORIO OROKORRAK

Hiru ikastetxeetan egindako azterketa eta ateratako emaitzak kontuan hartuta iritsi gara jarraian mahaigaineratuko ditugun ondorioetara. Lehenik, ondorio nagusitik abiatuko gara: **ikasleen ahozko hizkuntzan garapen azterna argiak antzeman dira. Ikastetxe guztietan eman da jauzia** ahozko hizkuntzaren lanketan, dena den, aldeak egon dira batetik bestera. Jarraian jaso ditugu ondorio zehatzagoak:

- **Abiatze-maila mailari** dagokionez, hiru ikastetxeetako ikasleen ahozko abiapuntua **ezberdina** izan da: B ikastetxeko ikasleen abiapuntua nahiko baxua izan da; jarraian, A ikastetxeko ikasleak kokatu dira, maila ertain batekin abiatuta; eta, azkenik, C ikastetxeko ikasleek, hasierako maila nahiko altua erakutsi dute.
- **Jauziari** dagokionez ere, aldea egon da. B ikastetxeko ikasleek eta A ikastetxeko ikasleek (maila baxuena dutenek) jauzirik handiena eman dute (B ikastetxean, 78 aldiz eman dute jauzia adierazle desberdinetan, eta B ikastetxean, 74 aldiz), eta C ikastetxean (maila handiena dagoen ikastetxean) jauzirik txikiena ikusi da (21 aldiz eman dute jauzia adierazle desberdinetan). Dena den, C ikastetxeko ikasleek emandako jauzia txikiagoa izan arren, horiek ere lortu dituzte ahozko baliabideak (testu egituratuagoak ekoiztu dituzte eta lokailuak ere erabili dituzte).
- **Mailari** dagokionez, hauek izan dira emaitzak, ikastetxeka.
 - B ikastetxean, mailarik baxuenean hasita, gehienek puntu bateko jauzia egin dute (gehienek $D > C$, bi ikaslek $C > B$ eta ikasle batek $B > B+$), eta ikasle bat maila berean mantendu da ($C > C$).
 - A ikastetxean, maila ertain batetik abiatuta, ikasle gehienek puntu bateko jauzia egin dute (gehienek $C > B$ eta ikasle batek $D > C$). Maila baxuenean hasi den ikasle batek ia bi puntuko jauzia egin du ($D > C+/B$).
 - C ikastetxean maila altu batetik abiatuta (ikasle gehienak B mailan hasi dira) maila berean mantendu dira. Horietako hiru ikaslek puntu erdiko jauzia egin dute ($B > B+$), baina aldea ez da nahikoa izan puntu oso bat igotzeko. Ikasle bat C mailan hasi eta maila berean mantendu da ($C > C$).
- **Adierazleetan emandako jauziari** dagokionez, alde batetik, maila baxuagoa duten ikasleek (A eta B ikastetxetakoek), adierazle hauetan egin dute jauzirik handiena: testuaren egiturari, eginkizunari egokitzean, jarioan, aditzetan. Jauzirik txikiena, ordea, adierazle hauetan eman dute: deklinabidean, sintaxian eta lexikoan. Beste alde batetik, maila altua duten ikasleek (C ikastetxekoek) jauzirik nabarmena aditzetan, testu egiturari eta lexikoan egin dute. Jauzirik txikiena eginkizunari egokitzean nabarmendu da.

- Aurreko emaitzak ikusita, **hasierako hipotesia bete da**: agerian geratu da C ikastetxean metodologiaren eragina txikiagoa izan dela. Ikastetxe horretan, ikasle askok euskara etxetik dakarte (ikastetxeak emandako datuen arabera, gutxi gorabehera gelakide erdiak euskaraz egiten du etxean; bi gurasoak edo guraso bat gutxienez euskalduna da). Horrek esan nahi du ikasle gehienak maila altuago batetik hasi direla. Bestalde, pentsa daiteke Berba-lapiko metodologiak eskaintzen duen espazioak, denborak, ikasle horiengan ez duela aldaketa handirik eragin, egunerokotasunean euskaraz aritzen direlako, etxean nahiz eskolan. Ikasle euskaldun kopuru handiak gelako hizkuntza dinamikan ere eragiten du; hortaz, ziurrenik ikasle horiek euskara gehiago entzutera eta hitz egitera ohituta daude, adibidez, A edo B ikastetxeetako ikasleekin konparatuta. Horrek agerian utzi du Berba-lapiko metodologia eremu erdaldunetan erabiltzeko diseinatuta dagoela eta, beste eremu soziolinguistiko batzuetan implementatu nahi izanez gero, aldagai batzuk egokitu beharko lirakeela (material didaktikoa izan daiteke aukeretako bat).
- Ikasleen ekoizpenetan **diskurtsoa osatzeko estrategiak ugaritu** egin dira. Ikasleak eurak implementazioak aurrera egin ahala, zenbait diskurtso estrategia eskuratu dituzte, behean jaso dira adibide zenbait:
 - **Autozuzenketak monologalean**: IK: *"Superman etorri du / da (B ikastetxea, LH1)*
 - **Birformulazioak**: IK: *Yo no quiero que los amigos tengan daño / IRK: Entzun duzue? Nola esaten da hori? / IK: Nik ez dudala/ nik ez dudala nahi nire lagunak minik hartu (B ikastetxea, LH1)*
 - Irakaslearen galderei esker, **zehaztapenak**: IRK: *Zergatik egon zinen pozik? IK: Ze eguraldi ona egiten zuelako (A ikastetxea, LH1)*
 - **Nola esaten da...?** galdera euskaraz jarraitzeko eta isilik ez geratzeko: *nola esaten da "ya se han matado"?* (B ikastetxea, LH1) / AT: *Horien gauzak/ e/ Voy a decirlo en castellano. > OT: Nola esaten da asombroso?* (B ikastetxea, LH1).

2 ONDORIO NAGUSIAK

Jarraian 2023ko ikerketan ateratako ondorio nagusiak jaso dira. Alde batetik, **ikasleei begira**, hona eman ohar esanguratsu batzuk:

- **Hizkuntza-Errutinen metodologia eraginkorra dela berretsi da.** Ikasleen ahozko hizkuntzan **garapen aztarnak** antzeman dira hiru ikastetxeetan. Bai A, bai B materiala baliatu den kasuetan, jautzia egon da. Gela barruko ahozko aniztasunari erantzuteko proposamen berria egin da eta materialetan egokitzapenak egin dira behar horri erantzuteko.
- Metodologiak **ikasleen rolaren aldaketa** eragin du. Metodologiak ikasleen **ahozko gaitasun sortzailea** eragin du subjektu pasiboak izatetik **subjektu aktibo** bihurtuz. Ikasleek benetako **"komunikatzeko beharra"** azaldu dute eta ahoz sortzen aritu dira. Dinamiketan **hitz egiteko denbora gehiago** eskaini zaie eta parte hartzaile nagusiak bihurtu dira saioetan.
- **Ikaskideen arteko laguntza** ere sortu da. Ikasle batzuek diskurtsoa osatu dute beste ikaskideen galderek eta oharrek lagunduta. Hortaz, maila altuagoa duten ikasleek ere garapena egin dute modu desberdin batean; batez ere **eredu rola** hartzen, **"irakaslearen paperean"** sartzen eta **haien ikaskideei ekoizpenetan laguntzen**.
- **Diskurtsoa eraikitzeo estrategiak ugaritu** egin dira ikasleen artean. Horien artean hauek azpimarra daitezke: ikasleak norberaren diskurtsoan autozuzenketak bideratzea, aurretik ikasitakoa bere diskurtsoan txertatu nahian. Birformulazioak eta esateko bide berriak bilatu dituzte, diskurtsoaren gaineko zehaztapenak ere ugaritu egin dira.
- **Ikasleek hizkuntzarekin jolastu eta gozatu** dute. Hobekuntza ikusi da ez bakarrik ikasleen ahozko gaitasunean, baizik eta hizkuntzarekiko jarreran ere egon da aldaketa. **Metodologian oso gustura** aritu dira ikasleak eta horrela adierazi dute irakasleek: *"Hizkuntzarekiko jarreran hobekuntza ikaragarria izan da"*. Hizkuntza ikaste-objektu izanda ere, ikasleek dinamika errepikatzeo eskatu dute. Irakasleek balorazioetan azaldu dute batzuetan beren kabuz jesartzen zirela zirkuluan eta dinamikan hasten zirela (B ikastetxea LH1).

Ikerketak informazio asko ematen digu **irakasleen inguruan** ere. Prestakuntza eta jarraipen estua egin zaie, eta lehen aipatu dugun bezala, balorazioa egiten zaie amaieran. Azkenean, haien papera oso garrantzitsua da metodologia ondo inplementatzeko eta ikasleen ahozkoan eragiteko. Beraz, beraian ere jarri dugu fokua.

- Irakasleak **ahozko hizkuntzan eragiteko estrategietan formatu dira**. Ahozko hizkuntza lantzeko sistematizazioaren garrantzia ikusi dute, eta **"hizkuntza betaurrekoak" jartzen ere ikasi dute**. Hau da, zuzenketak modu kontzienteagoan egiten dituzte orain; "dena ez dela zuzendu behar" ulertzen dute eta langai diren alderdi horietan jartzen dute fokua, **erronka linguistikoak modu graduatuan** lantzen eta aldamiatzen: *"nik itxaroten dut gehiago, zuzenketa egiteko orduan, orain kontzienteago nago"* (C ikastetxea, LH1); *"ez nekien ahozkotasuna nola lantzen zen, orain ikusten dut*

sistematizatzea"; *"lehen igual zuzenduko genuke edozein gauza, eta orain ba landu dena"* (B ikastetxea LH1). **Irakasle-ikasle arteko elkarrekintzak** ere izaera ezberdinetakoak eta ugariak izan dira: **aldamiatzeko galdera esanguratsuak** egin dituzte, eta errore eta **akatsak egiteko lizentziak** eman dituzte (erroretara irekiak agertu dira bai ikasleak eta baita irakasleak ere).

- Metodologiaren emaitzek **irakaslea ahalduntzen** lagundu dute. Irakasleek azaldu duten bezala, ikasleek metodologian ikasitakoa barneratu dute eta beste eremu batzuetan azaldu da, hau da, landutako alderdiak azaleratu egin dira eta horrek nolabait aitortza bat eman die irakasleei *"[Landutako alderdi] asko barneratu dituzte, eta polita izan da asteburuko istorioak kontatu dituztenean agertu direla"* (C ikastetxea, LH1).